

## Olinpiadak Euskararen Eguna ospatzeko eta gogoeta erabilera bultzatzeko

2012/12/03

Badira 4 urte Mondragoneko Goi Eskola Politeknikoan Euskararen Eguna ospatzen hasi ginela. Olinpiadak euskarari egiten zaion keinu irribarretsua da, eta egun honetan euskara gogoan hartu eta ondo pasatzea izaten da gure helburu nagusia.

Helburu horretaz gain, aurten beste mugarri bat ere jarri dugu eta ikasle eta irakasle talde bat aritu da euskararen erabilerari buruzko gogoeta egiten. Inkesta Soziolinguistikoa eta kale-erabilera neurketetatik ateratako emaitzak eta ondorioak mintzagai hartuta egin da gogoeta. Hausnarketa horietatik, euskaraz bizitzeko ahaleaginean izandako gazi-gozaok, oztopoak eta lorpenak, pasadizoak, bidean egindakoak eta oraindik egiteko daukagun bidea atera ditugu mahai gainera.

Ospatu dezagun gaur eguna, baina gogoan eduki dezagun gaur arte eta bihartik aurrera beti dela euskararen eguna.



Euskararen Eguna